

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Onespena ematea aurrekontua izapidetzeko irizpideei

Bo191230A. Oiongo Udalbatzak irizpide hauek onetsi ditu aurrekontua izapidetzeko:

- Aurrekontu orokorraren proiektua zinegotziei bidaliko zaie eta gutxienez 10 (hamar) egun naturaleko epea irekiko da zuzenketak aurkezteko.
- Aurrekontuaren zuzenketak aurkeztu ahal izango zaizkie gastuen egoerei edo diru sarrerren egoerei edo aurrekontua betearazteko udal araudiaren artikuluei.
- Gastuen egoeretan sortzeko edo gehitzeko zuzenketak onartu ahal izango dira, baldin eta kapitulu hartan bertan zenbateko bereko murrizketa bat egitea proposatzen badute.
- Gastuen egoeretan kentzeko edo gutxitzeko zuzenketak onartu ahal izango dira, baldin eta kapitulu hartan bertan zenbateko bereko gehikuntza bat egitea proposatzen badute.
- Ez da onartuko diru sarrerren egoeran gehikuntzak dakartzan zuzenketarik.
- Diru sarrerren egoeretako zuzenketak izapidetzeko, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeari buruzko ebaluazio txostena beharko da, baldin eta zuzenketa horiek hasiera batean aurreikusitako egoerak gutxitzea edo kentzea badakarte.
- Udal zerbitzuek zuzenketen txostenak (kasuan kasuko alderdiei buruzkoak: ekonomia-finantza, zuzenbidea, hirigintza ... arlokoak) egingo dituzte, zuzenketak egiteko emandako epe berdinean.
- Aurrekontu proiektuaren txostena egingo duen kontuen batzorde bereziaren bilkuran eztabaidatuko dira aurrekontu proiektua eta aldeko txostena duten zuzenketak. Eta bilkura horretan bertan kontrako txostena duten zuzenketen berri emango da.
- Alkateak udalbatzari bidaliko dio espediente onetsi, zuzendu edo itzul dezan.
- Alkateak ahalmena du ohiko bilkura egiteko gertuen dagoen data aldatzeko, aurrekontu orokorraren gaia sartu ahal izateko. Data hori aldatu baino lehen, taldeen bozeramaileekin kontsultatu behar da.

Oion, 2019ko abenduaren 30a

Alkatea

EDUARDO TERROBA CABEZÓN